

# Getxo Hurbil

## Premios al Comercio Getxotarra Getxoko Merkataritza Sariak I. EDIZIOA

MARTXOKO  
ALE BEREZIA

2024



**Getxo**  
*bizi ezazu*  
Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Getxo Hurbil sarien lehen edizioa ospatzen ari gara, udalerriko hiru merkataritza elkarten parte hartzearekin: Algortako Dendak, Getxo Enpresa eta Romo Bizirik.

Horiek, Merkataritza Ganberako eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Behatokiko ordezkari batekin batera, sarituak erabakitzeko ardura izan duen epaimahaiko kideak izan dira.

Ekimen honen bidez, gure hiri-ekonomiaren eta kaleen parte diren merkataritza eta zerbitzu **pertsonalen establezimenduak aitortu**, sustatu eta ikusarazi nahi dira.



Lehenengo deialdi honetan, 95 hautagaitza jaso dira. Epaimahaiak azterketa lan handia egin eta 6 kategoriei sariak ematea eta, lehenengo edizio honetan, 2 sari berezi gehitzea ebatzi zuen.

Sari banaketa martxoaren 12an ospatu zen Muxikebarrin.



Zorionak, gainerako sektorearekin batera, tokiko garapen ekonomikoaren motorra diren eta herritarren eta bisitarien zerbitzura dagoen eskaintza zabalarekin, Getxo hiri lehiakorragoa bihurtzen laguntzen duten negozio guztiei.

# GETXO HURBIL SARIAK I. EDIZIOA

## TRADIZIOA ETA IBILBIDEA ZURICALDAY



Andrés Larrazabal 3  
Telletxe 1

**Zuricalday** Jose M<sup>o</sup> Bayok, Martina de Zuricaldayren bilobak, 1917an sortutako familia-negozioa da. Gozogintza tradizionalako produktuen elaborazio artisauan aritzen dira, elaborazio bakoitza mimoz landuz. Mende bat baino gehiago daramate Getxo gozatzeko Areeta eta Algortako lokaletatik.

[pasteleriaszuricalday.es/es](http://pasteleriaszuricalday.es/es)

## MERKATARITZA SORTU BERRIA - EKINTZAILTZA

BHU GETXO - BORJA HERNÁNDEZ



Alangobarri 10

**Borja Hernandezek** neurria eta kalitatezko produktuak egiten dituen "made in Getxo" atelier bat sortu du, "0 kilometroko" jantziak eginez, ia existitzen ez den karbono-aztarnarekin. Jantzi guztiak sortzeko bere diseinua eta patroia sortzen du, merkaturatzen dituen plisau artisauak bezala, Espainia osoan denda bertan zein online saltzen dituenak.

[bhugetxo.com](http://bhugetxo.com)

## 360° IRAUNKORTASUNA AMASARTE LABEA



Juan Bautista Zabala 3

Ekoizpen prozesu naturalaren aldeko apustua egiten duen okindegia da. Osagaiak arretaz aukeratzetik produktu bakoitza egiteraino, ziklo naturalak errespetatuz. Praktika naturalen sustapenean eta ingurumena errespetatzen duten osagaien erabileran aparta.

IG: [@amasarte\\_labea](https://www.instagram.com/amasarte_labea)

## BERRIKUNTZA. NEGOZIO- EREDUAREN ERALDAKETA

VITO 52



Basagoiti etorbidea 52

**Vito 52k** 23 urte daramatza bere bezero leialei zapata desberdinak eskaintzen. Baina prestatzen duen erakusleho bakoitzak harritzeaz gain, online kanpainak eta produktuen aurkezpen ugari egiten ditu, eta bere sare sozialak inork baino hobeto erabiltzen ditu. Zapata denda honen arrakastaren gakoa espezializazioa eta eskaintzen dion mimoa izan dira.

[vito52.com](http://vito52.com)

## EKIN MERKATARI AINGARA



Ibaiondo 13

**Aingara** bordatu pertsonalizatuak, euskal arropa tradizionala eta oparitzeko detaile ugari dituen denda da. Udalak bultzatutako programa askotan parte hartzen du, baina Romon garatzen den edozein ekintzatan ere oso aktiboa da. Romo Bizirik elkartearen sorreraren bultzatzaileetako bat izan zen.

[bordadosaingara.com/es/bordados-aingara](http://bordadosaingara.com/es/bordados-aingara)

## GETXOKO ARIMA KANTXA KIROL MODA



Torrene 4

**Kantxa Kirol Moda** 40 urte inguru daraman kirol denda bat da, Algortan ez ezik, Getxo eta Uribe Kosta osoan errotuta dagoena. Gainera, mota guztietako kirolariei, klub zein kirol elkarte askori lagundu die, eta era guztietako jai herrikoietan sustatzaile, babesle eta antolatzaile izan da ere. Denda ez ezik, bere taldea Getxoren arimaren parte da eta izango da.

[kantxa.eus](http://kantxa.eus)

## GETXO HURBIL AIPAMEN BEREZIAK

### TRADIZIOA ETA IBILBIDEA LIBRERÍA LOPEZ

Neguri hirigunea 9  
[@libreria\\_lopez](https://www.instagram.com/libreria_lopez)



### TRADIZIOA ETA IBILBIDEA JB MODAS

Telletxe 9  
[www.jbgetxo.com](http://www.jbgetxo.com)

